



Etapa Amaierako  
EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA  
EVALUACIÓN DE DIAGNÓSTICO  
de fin de etapa

# MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila  
ITEM LIBERATUAK  
2018





## OPORRAK

Mirenek, Andonik eta Bakarnek, oporretan, Italiara joateko asmoa dute, lau astetarako, alokatutako auto batean.



Autoak alokatzen dituen enpresan informazio hau hartu dute:

Autoa	Behar den erregaia	Alokairuaren prezioa	Derrigorrezko aseguruua	100 km-ko kontsumitutako erregaia
 TATA	Gasolioa	190 € astean	190 €	5,5 litro
 SUSA	Gasolina	4 aste: 650 €	50 €	6 litro

Esan dietenez, haien oporraldian, gasolioaren prezioa 1,1 euro/litro izango da, eta gasolinarena, 1,2 euro/litro.

01

Mirenek, Andonik eta Bakarnek guztira 4 000 km egingo dituzte, gutxi gorabehera.

**SUSA modeloa aukeratuz gero, zein izango da autoa alokatzeko gastua?**

- A. 706 €
- B. 964 €
- C. 988 €
- D. 1 170 €

02

Andonik aztertu nahi du, SUSA autoa hartuz gero, zein izango den gastu osoa ( $G$ ) ibilitako kilometro kopuruaren arabera ( $x$ ).

**Zein funtzio erabili behar du?**

- A.  $G = 700 + 1,2 \cdot 0,06 \cdot x$
- B.  $G = 700 + 1,1 \cdot 0,06 \cdot x$
- C.  $G = 700 + 1,2 \cdot 6 \cdot x$
- D.  $G = 380 + 1,2 \cdot 0,06 \cdot x$

03

Mirenek TATA autoaren maletategia aztertu nahi du. Publizitate-liburuxka batean haren neurriak ikusi ditu:



Zein da, gutxi gorabehera, maletategiaren bolumena, dezimetro kubikotan adierazita?

- A. 6 600 dezimetro kubiko.
- B. 660 dezimetro kubiko.
- C. 280 dezimetro kubiko.
- D. 600 dezimetro kubiko.

04

Italiara egindako bidaiari, eurotan ordaindu dute izandako gastu osoa (autoa, hotelak, otorduak...). Gastu hori honela banatu dute: Mirenek laurdena ordainduko du, Andonik herena, eta gainerakoa Bakarnek ordainduko du.

Bakarnek 1 500 euro ordaindu baditu, zein izan da gastu osoa?

- A. 3 600 €
- B. 2 275 €
- C. 3 500 €
- D. 3 800 €

05

Mirenek, Andonik eta Bakarnek itxasontzizko txango bat erreserbatu dute. Taula honetan txango horietako prezioak adierazten dira, laguneko.

***Itxasontzizko txangoak***



Iraupena	Adinez txikiak (14 urte arte)	Helduak (14 urte baino gehiago)
1 ordu	22,50 €	39,00 €
2 ordu	42,50 €	73,00 €
3 ordu	60,00 €	100,00 €
4 ordu	78,00 €	129,00 €

Haiek, beste turistekin batera, 12 kideko taldea osatu dute 3 orduko txangoa egiteko.

Taldeko kide batzuk adinez txikiak dira, eta gainerakoak, helduak. Guztira, 1 080 euro ordaindu dute txangoagatik.

Zenbat adinez txiki daude taldean?

- A. 2 adinez txiki.
- B. 3 adinez txiki.
- C. 4 adinez txiki.
- D. 9 adinez txiki.

## ITEMEN EZAUGARRIAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

<b>ITEMAREN ZENB.</b>	<b>01</b>
<b>DIMENTSIOA</b>	1. Kantitatea
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA</b>	1. Zenbaki eta eragiketa mota ezberdinak eta haien propietateak erabiltzea, informazioak aztertuz eguneroko bizitzarekin lotutako problemak ebazteko testuinguruan.
<b>LORPEN ADIERAZLEA</b>	4. Zenbakien, eragiketen eta haien propietateen ezagutzak integratzen ditu, eta zenbaki mota ezberdin dauden problema eta ariketak ebazteko erabiltzen ditu.
<b>ERANTZUN ZUZENA</b>	988 €
<b>ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK</b>	(Item irekietarako soilik)

<b>ITEMAREN ZENB.</b>	<b>02</b>
<b>DIMENTSIOA</b>	3. Cambios, relaciones, tratamiento de la información e incertidumbre
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA</b>	6. Egoera errealei lotutako funtzioen inguruko informazioa identifikatzea, adieraztea eta aztertzea, jokabideari eta bilakaerari buruzko ondorioak atereaz.
<b>LORPEN ADIERAZLEA</b>	2. Funtzioen grafikoak edo taulak dagozkien adierazpen aljebraikoekin erlazionatzen ditu.
<b>ERANTZUN ZUZENA</b>	$G = 700 + 1,2 \cdot 0,06 \cdot x$
<b>ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK</b>	(Item irekietarako soilik)

<b>ITEMAREN ZENB.</b>	<b>03</b>
<b>DIMENTSIOA</b>	1. Kantitatea
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA</b>	3. Magnitudeak kalkulatzeko, elementu, forma eta multzokatze geometrikoen erabilera barne, egoera errealetatik abiatuta, eta neurketako formula eta unitate eta magnitudeen ordena egokiak erabiliz.
<b>LORPEN ADIERAZLEA</b>	2. Irudi eta gorputz garrantzitsuenen (triangeluak, laukizuzenak, zirkuluak, prismak, piramideak, zilindroak, konoak eta esferak) azalerak eta bolumenak kalkulatzeko eta eguneroko testuinguruetan unitate zuzenak erabiltzen ditu.
<b>ERANTZUN ZUZENA</b>	660 dezimetro kubiko.
<b>ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK</b>	(Item irekietarako soilik)

<b>ITEMAREN ZENB.</b>	<b>04</b>
<b>DIMENTSIOA</b>	1. Kantitatea
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA</b>	2. Ekuazioak, inekuazioak eta mota ezberdineko sistema aljebraikoak planteatzea eta ebaztea eskatzen duten eguneroko bizitzako eta arlo zientifikoko problemak ebaztea ebazpenaren berezko algoritmoak (metodoak) trebeziaz aplikatuz.
<b>LORPEN ADIERAZLEA</b>	3. Ekuazioak (lehen eta bigarren mailakoak) eta lehen mailako ekuazio-sistemak ebazten ditu, aljebra sinbolikoa erabiliz eta lortutako emaitzak interpretatuz.
<b>ERANTZUN ZUZENA</b>	3 600 €
<b>ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK</b>	(Item irekietarako soilik)

<b>ITEMAREN ZENB.</b>	<b>05</b>
<b>DIMENTSIOA</b>	1. Kantitatea
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA</b>	2. Ekuazioak, inekuazioak eta mota ezberdineko sistema aljebraikoak planteatzea eta ebaztea eskatzen duten eguneroko bizitzako eta arlo zientifikoko problemak ebaztea ebazpenaren berezko algoritmoak (metodoak) trebeziaz aplikatuz.
<b>LORPEN ADIERAZLEA</b>	4. Lehen eta bigarren mailako ekuazioak, beste ekuazio mota batzuk (esponentzialak, logaritmikoak...) eta ekuazio-sistemak eta lehen mailako inekuazioak ebazten ditu, aljebra sinbolikoa erabiliz eta lortutako emaitzak interpretatuz.
<b>ERANTZUN ZUZENA</b>	3 adin txikiko kide.
<b>ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK</b>	(Item irekietarako soilik)